

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Talde Popularraren bozeramaile Baroja Corominas Fisasek, indarrean den Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta 2019-2020 udazken-neguko brea botatze kanpainaren gaineko KONTROL MOZIO hau egin nahi dio alkateari, Eneko Goia Lasori, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko urriaren 14an dokumentu bat aurkeztu zuten udal gobernuak oposizioko taldeei, 2019-2020 udazken-neguko brea botatze kanpainako konpromisoak zekartzana. Dokumentu hori Dbus-eko gidariek Tolosa hiribidea eta hiriko beste puntu batzuk asfaltatzeko exijentziari erantzuteko egin zen.

Hurrengo egunean, 2019ko urriaren 15ean, Diario Vascok albiste hau jaso zekarren: “Lehiaketara aterata da 80 kale asfaltatzeko lana, 2 milioi euroan egiteko”.

Artikuluaren gorputzak honela zioen: “Bi milioi euro gastatuko ditu Udalak udazken-negu honetan brea botatzen, azkeneko hamarkada hauetan denetan izan den diru kopururik handienetako bat”.

Negua pasatzeko 20 egun falta direla, gobernu talde hau ez da gauza izan Tolosa hiribidean presako prozeduraren bidez inbertitutakoa baino euro bat gehiago ere erabiltzeko. Beste 79 promesak, berriz ere, ahanzturan galdu dira.

Gune Publikoen Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran, Gune Publikoetako eta Hiri Zerbitzuetako zinegotzi eskuorde Marisol Garmendiak aitortu zuen 1. eta 2. loteak lehiaketara aterata daudela, baina esleitu gabe daudela oraindik.

Gobernu talde hau ez da gai herritarrekin hartutako konpromisoak betetzeko. Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kronograma zehatz bat egiteko, datozen bi hilabeteetan, 2020ko martxoan eta apirilean, bideetako breia hobetzeko egin beharreko lanena.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio asfaltatze beharren plan eta jarduketa kronograma batzuk egiteko, bi hilean behin, gure hiriko bideen zorua hobetzeko.
3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bi hilean behin agertzeko asfaltatze arloan egindako inbertsioen eta hurrengo bi hilabeteetan egingo dituenen berri emateko.

Donostian, 2020ko otsailaren 20an

Borja Corominas Fisas

PP udal taldearen bozeramailea